



IKASTARO OSAGARRIAK INTERCULTURAL COMPETENCES (2^a ED.)

INFORMAZIO OROKORRA

IKASTURTEA: 2018/2019

ARLOA: Humanidadeak

KREDITUAK: 3 ECTS kreditu (*)

MATRIKULA TASA: 40 euro

ARDURADUN AKADEMIKOA: **Ainhoa Gómez Pintado**



AURKEZPENA

Universidad **del País Vasco/Euskal Herriko unibertsitatea prestakuntza** nazioartera zabaltzearen aldeko da, hartara ikasleek hizkuntza, kultura eta prestakuntzaren arloko gaitasunak lor ditzaten etorkizunari aurre egiteko eta arrakastarako aukera zabalagoa izan dezaten gizarte globalizatuko erronkei begira.

Marko honen barruan, beste herri batzuetarako higikortasun programak sustatzen dira. Uste dugu ikasleei inpaktu onuragarri bat ekarri ohi diela, banakoaren zerikusirik gabeko testuinguru sozial ezezagun batean egoteak. Horregatik, egonaldi-mota honen egin baino lehen, kulturarteko konpetentzia komunikatiboek lan egitea beharrezkoa da.

ZURE BILA GABILTZA

Mugikortasun egonaldi bat egingo duzu eta zure gaitasunak hobetu nahi dituzu atzerrian hobeto ibiltzeko?

Universidad **del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak prestakuntzaren** nazioartekotzea bultzatzen du, ikasleetan hainbat gaitasun (hizkuntza, kultur eta prestakuntza gaitasunak) garatzeko helburu orokorra izanik, geroan gizarte globalaren erronkei ekitea ahalbidetzeko ahalik eta arrakasta bermerik handienaz.

Gurea ez den testuinguru batean kokatzeak sekulako eragina dakar. Hori dela eta, mugikortasun egonaldiaren aurretik, beharrezkoa da kulturarteko



gaitasunak eta komunikaziokoak lantzea zure esperientzia pertsonalak zein akademikoak optimizatzeko atzerrian egingo duzun egonaldian.

Baldin eta ingelesezko B2 baduzu, nazioarteko mugikortasun bat egiteko onartua bazaude edo egina baduzu baina munduan gaitutako profesional gisa hobeto jokatzeko ahalbidetuko dizuten kulturarteko gaitasunetan sakondu nahi baduzu, ... hau da behar duzun ikastaroa!

Ikastaroa hiru campusetan emango da martxoaren 15etik 30era bitartean, ostiral arratsaldetan (15:00 - 20:00) eta larunbat goizetan (09:00 - 14:00). Informazio gehiago nahi izanez gero, gure webgunea kontsulta dezakezu: <https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/course-on-intercultural-competences>

Ikastaro hau egiteak "Nazioarteko sakontze aipamena" lortzeko lehenengo baldintza betetzeko aukera ematen du.

Gainera, ikastaro hau eginez gero, gehienez ECTS kreditu bateko aitortpena lor liteke UPV/EHUren graduetako ikasketetan.

Apunta zaitez!

IRTEERA PROFESIONALAK

Alde batera utzita gure ikasleek aukeratutako prestakuntza arloa eta zer lan sektoretara jo nahi duen, kulturarteko gaitasunak eta komunikaziokoak garatzea plus bat da, ibilbide profesionalean aurrera egiteko bultzada bat eta faktore bat gure inguruneke enpresetan egiten diren hautaketa prozesuetan gailentzeko.

Kulturarteko prestakuntza batek hizkuntzei lotutako trebetasunak ez ezik, egokitzapenerako gaitasuna ere islatzen du, beste mentalitate batzuk ulertzekoa eta aniztasun ingurune batean lan egitekoa. Eta, jakina, gaitasun horiek gero eta baloratuagoak dira ingurune globalean diharduten enpresetan.



BALDINTZAK

UPV/EHUko graduko eta masterreko ikasleei zuzendua dago, beste herrialde batera joango direnak ikastera edo praktikak egitera UPV/EHUK trukerako izango dituen hitzarmen edo programen bidez.

Plaza librerik egonez gero, egonaldietarako oraindik onartua ez dagoen edo inoiz egonaldirik egin ez duen ikaslerik ere onartuko da.

Ikastaroa egiteko nahitaezkoa da ingeleseko B2 ziurtagiria izatea, ikastaroa hizkuntza horretan emango baita oso osorik.

IRAKASKUNTZA

HASIERA ETA AMAIERA DATA: 2019/03/15etik 2019/03/30era

EMATEKO TOKIA:

- Bilbo –**Economía eta Enpresa Facultatea(Sarriko)**
- Donostia –Carlos Santamaria Zentrua
- Gasteiz – Hegoalde Gizarte Etxea

HIZKUNTZA: ingelesa

INFORMAZIOA/KONTAKTUA

SAIL EDO ORGANO ARDURADUNA: Eleaniztasun Unitatea, Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen Arloko Errektoreordetza

HELBIDEA: Arabako Campuseko Errektoreordetzako eraikina, Izarduy Comandantea, 2 01006 – Vitoria Gasteiz

TELEFONOA: 94 601 2962 o 94 601 7903

POSTA ELEKTRONIKOA: competenciaintercultural@ehu.eus

WEB ORRIA: <https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/course-on-intercultural-competences>

(*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.